

Aretxabaleta'tar Luzio

Tierra Vasca, 136. zk., 1967-10: 5.

Emen gauden guziok ezagutzen genduan Aretxabaleta'tar Luzio. Ba dakigu danok bilbotarra zala, ta guda ondoan onera etorria zala; abertzalea zala an eta abertzalea emen. Eusko Alberdi Jeltzale'ko bazkide zala, Eusko Etxe onetako lendakari izan zala, ta, azkenik, Euzkadi'ko jaurlaritzako ordezkari zala Venezuela'n.

Au danok, edo geienok, ezagutzen degu.

Guetako askoak ezagutzen ez degun beste zerbaitek ba da, oraindik: Aretxabaleta'dar Luzio Bilbao'ko Eusko-Gastedi edo Juventud Vasca'ko lendakari izan zala ill artean. Bai, guda asi zanean, Luzio zan Bilbo'ko Juventud Vasca'ko lendakari, eta nola arrezkero besterik aukeratzetik izan ez dan, bera zan, iltzeko garai zorrotz ura etorri zitzaion arte, Bilbo'ko Juventud Vasca'ko lendakari.

Esan ditugu Aretxabaleta'tar Luzio'k izan zituan bazkidetasunak. Oiek dira gizon eta euskotar eta abertzale onek bere izena, ta laguntza, eskeñiak, eta emanak zeuzkan erakundeak.

Eta bazkidetasun oiek aitatu eta gero, ezer geiago esan al genezake?

Esan genitezke, bai, amaika gauz!

Bazkidetasunak ez du berez gizona jasotzen edo jeixten. Ala balitz, emengo edo ango bazkide egitea naikoa izango litzake, ta edonor jasoko litzake errez asko.

Bazkidetasuna nola gizonak eramaten duan, nola bazkidetasuna gizonak bizi izaten duanean dago merezi izaten, gizonaren aunditze edo txikitze ori; ta emen bai ba daukagu Aretxabaleta'tar Luzio'tzaz esateko ugari!

Aretxabaleta'tar Luzio'k ba zuan gizona izateko bere bide berezi bat leialtasuna.

Leialtasun au ere gizon askok izaten dute; alegia, berak gazte aroan izan diranei eltzen jakin izan duten gizonak ugari dauzkagu gure artean gaunari lagun. Len abertzalea ba zan, orain ere abertzale jokatzeko ori gure gizonaen artean ugari da. Len alderdi batekoa ba zan, orain ere alderdi berean iraute ori ere bai.

Gure artean ba dira izugarritzako salduak ere. Gure erriak ere ema

Bañan ori naikoa ote da, gero? eginda dauden gizonak ere. Baiñan leialtasuna erakutsi dutenak geiago dira ala ere, askoz geiago, ta leiala edo itzekoa izatea ez da gure artean ainbestekoa.

Bañan Aretxabaleta'ren leialtasuna maila onetakoa baño aundiagoa zan.

Leialtasuna ere era askoetara eraman litekean karga baita.

Leiala izateak, egitazkoa izateak, bere itza betetzen duan gizona izateak era ba ditu bere mailak. Gizona leial izateko, leialtasunaren aurka, egitasunaren aurka, bere itzaren aurka ez joatearekin egiña dauka gizonak; leial eta egiko ta itzekoa izatea naikoa dauka gizonak leiala izateko.

Bañan ori naikoa ote da, gero?

Baikorra izatea ona da, arraz ona; bañan ez naikoa; ta batez ere ez da naikoa izaten lanak maldagorakoak diranean, egin bearrak gogorrak eta mintsuak eta mikatzak diranean. Baikorra izatez gañera, orrelako aldapagoran jarrita dagoan gizonak goitik bera erortzen utzi gabe iraunez gañera bere kemen guziak jarri bear ditu lanean, bere burua ta bere ankak lanean gogor bear ditu malda neketsu au igotzen joan eta izugarrizko aldapa gogor onen gallurra arrapatzeko.

Ta ara emen Aretxabaleta'tar Luziok urtetan eta urtetan gure artean egin duan lan neketsua, minkorra ta mikatza; aldapa gora jo ta jo, geratu gabe, askotan nekatuta, askotan naigabetuta, askotan minduta, askotan bakarrik.

* * *

Guk euskotar bezela Caracas'en egin ditugun lan guziak Eusko Etxea'ren bidez egiñak izan dira.

Au, gure Caracas'eko etxe au, izan da gure Euzkadi txikia. Emen izan ditugu gorabera pranko; izan ditugu egun neketsuak, egun paketsuak ere bai, erri batean bezelaxe, Euzkadi'n bezelaxe; emen izan ditugu egun pozgarriak, eta egun negargarriak ere bai, erri batean bezelaxe, Euzkadi'n bezelaxe; emen izan ditugu egun errexak, eta egun zallak ere bai, beste edozein erritan bezelaxe, Euzkadi'n bertan bezelaxe.

Gogora zaitezte orain, eta ez det uste orrelako gertakizunetan Aretxabaleta'tar Luzio Eusko Etxea'n paltan izan dala arkituko dezutenik.

Eusko-Etxe'ko batzarretan, or zan beti, lenengotako alki malletan exerita; gure illen mezetan ere or izaten genduan utsik egin gabe; kanpotarren bat gure etxean artzen gendunean ere ez zan paltako; gure jai bereziak ospatzen genituanen ere or zan beti gure gizona; gertakizun bat ospatzeko batzar bat egin bear zanean ere or gendeukan Luzio; gure Eusko-Etxea eztabaida edo auzi aundiren batean sartuta zegoenean ere or zegoan beti arpegi emateko gertu; iñora euskotarren izenean zerbaiten eske joan bear zanean, or zegoan beti emandako lana bere gain artzeko zai; iñoren negar-malkoren bat txukatzeko laguntza eske joan bearrean ba giña, or arkituko gendun beti bere tokian; gure ainbeste ta ainbeste izparringi ta aldizkari erosteko arpidedun billa ba zebiltzan, or arkituko zendun gizona izena, eta dirua, emateko gertu; Euzkadi'ko jaurlaritza, gure lenengo euskotar guzien jaurlaritzaren bearrak betetzeko diruak jaso bear zirala, ta or zeukazun, ez gero emateko zai bakarrik, baita gu danori gure egin-bearra gogorazteko ere, ta makiña bat itz motel eta txorakeri entzun eta gero ere bere lanean zuzen asko jarraitzeko ere; eta orrelako ainbat eta ainbat lanetan eten gabe, sari gabe, jarraitzea ez al da aipagarri?

Bai noski, orrelako gizonetatik urri baigabiltza.

* * *

Eta emen ezin ba da bere emazte ona aitatu gabe utzi.

Gizona ez da lan guzi oiek egiteko diña bakarrik izaten, bere emaztearen laguntzarik ez ba du. Miren bere emazteak makiña bat aldiz lagundu bear ko zion, noski, gizona etxera nekatua ta mindua etortzen zanean. Bere emaztea izan ez ba zuan, ezin aziko eta

eziko zituan bere seme ta alabak bere gixa azi ta ezi dituan bezela: abertzale ta aberri-langille. Ta bere emaztearen laguntza ta ulertze gabe ezin kenduko zion bere familiari orrenbeste denbora ta berak ostutzen zion orrenbeste ardura. Eta emaztearen laguntza ta ulertze gabe ezin kenduko zion bere etxeko ondasunari orrenbeste diru balio zituzten bere lan-orduak eta bere diru-ardura guziak.

Miren, bere emazte ona, berarekin izan zan bere neke ta atsekabe guzietan, bere aberri-lan guzietan, baita, azkenean, bere eriotz ordua eldu zitzaionean ere.

* * *

Eta bukatu nai det; oraindik itzlari asko daude nere ondoren, eta nereak, nai ta nai ez, motxa izan bear du.

Bañan bukatu baño lenago zerbait aitortu nai det: Aretxabaleta'tar Luzio aspaldi izan dala neretzat abertzaletasunaren ikasbide ta jarrai-bide, ta baita askotan nere lanen eraginbide nabarmena ere.

Bijoakio, ba, gaur, nere aitormen onekin, nere esker ona ta nere izketaldi apal onen omena, ta nere otoitza.